

Gosari-bilera, poteoa, I. Kanika Txapelketa eta musika, besteak beste ▶ 7



Emakume bat hilik aurkitu dute Tolosan indarkeria arrastoekin

HILOTZA ▶ Herenegun aurkitu zuten Santa Maria kaleko bere etxebizitzan

LEHENA ▶ Eskualdean genero indarkeriak hildako lehen biktima izan daiteke

ERREAKZIOAK ▶ Bilgune Feministak konzentrazioa deitu du gaur 12:00etan ▶ 5

Casino Kursaal Erremonte Txapelketako finala jokatu du gaur Patxi Zeberiok Urrutiaren aurka

ELDUAIN ▶ Hernaniko Galarreta pilotalekuan lehiatuko dira, 16:30etik aurrera ▶ 2-3

TOLOSA ▶

Askotariko jarduerak 750. urteurrena dela eta

Hilaren 13an izango da urteurrenaren egun handiena ▶ 4

LEITZA ▶

Leitzako II. Pilota Txapelketa abiarazi dute

Guztira 112 pilotari ariko dira astebururo pilotalekuan ▶ 4



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Ez hutsik egin seme-alabei

Testuliburu eta ikasmaterial guztiak **elkar megadendan**

Testuliburu eta ikasmaterialetan **adituak**

ARRASATE - BAIONA - BERGARA - BILBO - DONOSTIA - GASTEIZ - IRUN - IZURDUA - TOLOSA

3343
www.ekar.com

ekar¹¹
elkar iragaitzen dugulako

ABUZTUKO KRONIKA ▶



Andoni Goikoetxea gazteluerra artxiboko irudian. HITZA



Mikel Olazabal pilotaria Antiguako Txapelketako finalean. IMANOL OTEAGI/ARGAZKI PRESS

Abuztua saltsan

Urteko hilabete beroenean ere makina bat albiste izan da eskualdean; horien artean, kirola, kultura eta jaien arloko ekitaldiak; honela, guztietan garrantzitsuenak bildu ditu HITZAK



Antonio Alustiza artzaina, Txiki, bere txakurrarekin. J. ASTIBIA

ESTI EZEIZA

Oporrak direla eta, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA argitaratu ez den azken hilabetean, hainbat albiste izan dira bi eskualdeetan. Hala, ondorengo lerrotan azken hilabete honetako ekitaldi nagusiak biltzen saiatu da HITZA, ezbairik gabe, kirol jardunaldiak izan direlarik protagonista.

UZTAILAK 30

Sega. Andoni Goikoetxea gazteluarrak irabazi zuen Otxandion jokatutako Euskadiko Segá Txapelketa. Eskualdeko segalariak 1.705 kilo ebaki zituen eta 27 kiloko alde kendu zion bigarrenari, Jon Lapazaran markinarrari, hain zuzen ere. Joxe Gabirondo izan zen hirugarren (1.481 kilo) eta Mikel Aranalde (1.476,5 kilo), berriz, laugarren. Finala estua izan zen, baina Goikoetxeak txapela irabaztea lortu zuen, bere ibilbidean estreinakoz.

Maratoia. Maria Fernanda Olarra tolosarrak zilarrezko domina lortu zuen, Polonian jokatutako, beteranoen Europako Txapelketan. W55eko kategorian sailkatu zen tolosarra, 3 ordu, 42 minutu eta 30 segunduko denborarekin. Olarraren entrenatzailearen esanetan, «lasterketa bikaina burutu zuen, erritmo ona eramanaz, eta zailtasun handiegirik gabe». Maratoiak korrituz hamasei urte daramatza Olarrak, eta iaz, Donostian, Beteranoen Mundu Mailako Txapelketan bosgarren postua eskuratu zuen. Orain, bere hurrengo lehia, Riccione hirira (Italia) bidaiatzea izango da, Maratoinen Mundu Mailako Txapelketa jokatzeko.

UZTAILAK 31

Aizkora. Unai Otaño ibartarrak irabazi zuen Gipuzkoako 2. Mailako Aizkolarien Txapelketa. Donostian jokatutako zen, eta 29 urteko aizkolaria gazteak, 15 minutu eta 25 segunduko denborarekin nagusitasuna erakutsi zuen, 48 segunduko denbora atereaz bigarrenari, Ugartebururi, hain zuzen ere. Orain dela 10 urte Gipuzkoako 3. Mailakoa irabazi zuen Otaño, eta ondoren denbora bat geldirik egon zen.

ABUZTUAK 3

Musika. Urueñako Erdi Aroko laukoteak kontzertu bat eskaini zuen Santa Klaran. Donostiako musika hamabostaldia Tolosaren 750. urteurrenara hurbiltzeko asmoarekin antolatutako ekitaldi berezi hau. Hala, musikariek, Alfontso X.a Jakitsuaren kantigak eskaini zituzten. Cesar Cazaro, Jaime Muñoz eta Felipe S. Maskuñano aritu ziren eskenatoki gainean, Luis Delgadoren gidaritzapean.

Gizartea. Pako Larrañagak, Manilako epaiketean, bere eskubideen «bortsaketa larria» jasan zuela baieztatu zuen Nazio Batuen Erakundeak. NBEko Oinarrizko Eskubideen batzordeak aditza eman zuenez, «alegiar jatorriko presoak ez zuten bidezko epaiketa bat izan, eta bere oinarrizko eskubideak urratuak izan ziren». Larrañagak 9 urte egin ditu Filipinetako gartzela batean, heriotz zigorpean. Baina joan den apirilean, Gloria Macapagal, Filipinetako lehendakariak, heriotz zigorra aldatu zuen, ekainean, azkenik, erabat deuseztu. Hala ere, Pako Larrañagaren sendiak eta bere abokatuek, Pakoren errugabetasuna defendatu nahian dihardute.



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

Zizurkilgo
Plaza Etxeberri jatetxean
kamareroak behar ditugu
lanaldi osorako
616 647 869



Unai Otaño ibartarra Banakako Urrezko Aizkorareko kanporaketan. i.e

ABUZTUAK 17

Omenaldia. Adunan, Jasokunde Andre Mariaren omenez ospatutako jaien barruan, ekitaldi berezi bat egin zuten Juantxo Arregiren lana txalotzeko. Bera izan da, Axeri dantza berreskuratzen lagundu duen pertsona, eta aurten, jaien barruan, emanaldi bat egin zuten herriko eta Andoaingo hamabi pertsonak. Adunako Axeri dantza taldeak Andoaingo Juantxo Agirre omendu zuten eta plaka bat eman zioten oroigarri gisa. Agirrek Adunako taldeari erakutsi zion herrian jada galduta zegoen dantza herrikoia.

ABUZTUAK 27

Pilota. Mikel Olazabal aresoarrak eta Iñaki Izak irabazi zuten Afizionatu Mailako Antiguako Torneoa. Finalean kostata irabazi zieten Renobales eta Iru-retari (22-18). Azken lau tontoretan Izaren jarduna erabakigarria izan zen arren, Olazabal

izendatu zuten finaleko pilotari onena.

Pilota. Mikel Beloso tolosarrak estreinaldia egin zuen profesional mailan, Zarautzen. 21 urteko pilotariak partida txukuna jokatu zuen, eta 22-15eko emaitzarekin irabazi. Oier Mendizabal izan zen aurrelari gipuzkoararen atzelaria, eta hasieran oreka nagusi izan bazen ere, berehala aurre hartu zuten gipuzkoarrek. Azkenean, gainera, nahiko erraz lortu zuten garaipena Belosok eta Mendizabal II.ak, Beloki II.a eta Urrizelki 15 tanto egiteko gai baino ez baitziren izan partida kaskar batean.

Artzain Eguna. Antonio Alustiza aresoarrak, bere Txiki txakurrarekin batera irabazi zuen Nafarroako 39. Artzain Txakur Txapelketa. Uharteko Arakilgoarekin, bere zazpigarren garaipena irabaztea lortu zuen eskualdekoak. Bestalde, Joseto Billabonak jantzi onenaren saria eraman zuen.

ELDUAIN ▶ ERREMONTEA

Zeberio eta Urrutia nor baino nor, Casino Kursaal Txapelketako finalean

Apustu zaleek elduaindarra jotzen dute faborito gaurko finalerako



Elduaindarrak Binakako Txapelketa irabazi zuen iaz. J. U. / ARGAZKI PRESS

I. TERRADILLOS

Gaur jokatuko dute Patxi Zeberio eta Miguel Mari Urrutiak Casino Kursaal Banakako Erremonte Txapelketako finala Hernaniko Galarreta pilotalekuan, 16:30etik aurrera. Urrutiak elduaindarraren aurka jokaturiko partida irabazi arren, Zeberio da gaurko finaleko faborito nagusia; hala diote artekariek, 100-60ko al-

dea baitago bere alde apustueta.

Elduaindarraren arabera, baina, «ez dago faborito argirik, eta partida oso irekia izango da; agian esperientzia gehiago dudalako hartu naute faborito». Bere aurkariak, ordea, argi du Zeberio dela faborito: «izen handia du, eta ni, berriz, hasi berria naiz; normalean da bera izatea faborito nagusia».

Finalaren aurrean, garbi dute bi jokalariek erabiliko duten estrategia; Urrutiak luze jokatu du, Zeberio berriz aurrean. Herenegun eginiko pilota aukeraketan, euren joko modura hobekien egokitzen diren pilotak aukeratu zituzten. Saldiasoak 121 gramoko lau pilota, eta 123ko bat hautatu zituzten. Zeberio, zuzen ibiltzen diren piloten bila joan zen batez ere, eta gero boteari erreparatu zion; 125 gramoko bat, 122ko bi eta 121ko bat hautatu zituen.

Finaleren jarraipena

Elduaindarra eta Saldiasoak aurrez aurre jarriko dituen final handiak zale ugari bilduko ditu Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Pilotalekuan zuzenean ikusteko aukera ez dutenek telebistaren bidez ikusi ahaliko dute erremonte partida. Elduainen, Zeberioeren jaioterrian, gainera, Udalak Kultur Etxean pantaila handia jarriko du bertan partidaren jarraipena egin dezaten herri-tar guztiak.

TOLOSA ▶ HIRIGINTZA

Trafiko aldaketak Laskorain eta Paulo Rekondo kaleetan obrak direla eta

Astelehenean hasiko dituzte edukiontzia lur azpian jartzeko obrak

ERREDAKZIOA

Laskorain kalearen eta Lopez Mendizabal pasealekuaren artean, obra egiten hasi behar dute edukiontzia lur azpian jartzeko. Era berean, urbanizazio-obra egiten hasi behar dituzte San Frantzisko aldetik dagoen sarbidean. Datorren astelehenean, hilaren 4ean, hasiko dira lan hauekin, eta ondorioz, hainbat aldaketa izango dira, bai trafiko aldetik, bai eta autoak aparkatzeko orduan ere.

Aldaketa horiek eragina izango dute Paulo Rekondo kalean eta Laskorain kalean: Paulo Rekondo kaleari dagokionez, norabide bikoitza izango du, bai zona horretara sartzeko orduan, bai eta handik ateratzekoan ere; Laskorain

kalean, berriz, obrek irauten duten artean, zati bat itxi egingo dutela adierazi dute.

Aldaketa horiek behar bezala adierazteko, seinaleak jarriko dituzte, eta obrak aurrera egin ahal, modu batera edo bestera eragingo du zona horretan. Beraz, obrak irauten duen bitartean Udalak zona hori erregulatuko duen seinalizazioa errespetatzea eskatzen die herritarrei.

Halaber, herritarren lankidetzari aldez aurretik eskertzen du eta obraren martxaren arabera, sor ditzakeen eragozpenak murrizteko, funtzionamendu berriari jarraipena egingo diotela eta hurra hobetzen joango direla, ahal den neurrian, azaldu dute Udaletik.



Pako Larrañaga preso, artxiboko irudietan. HITZA

Tolosako Udala
IRAGARKIA

Jokin Bildarratz Sorron Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak honako hau jakinarazten du:

San Frantzisko eta Laskorain kalearen zati bat (Lopez-Mendizabal pasealekuarekin elkartzen den gunera bitartean) oinezko bihurtzeko proiektuko lanak egiten hasi behar dute. Irailaren 4an hasiko dira eta bi hilabete eta erdi iraungo dute.

Hori dela eta, zaborrak, papera, beira eta abar jasotzeko ontziak lekuz aldatuko dituzte. Era berean, Paulo Rekondo kalea eta Laskorain kalea elkartzen diren leku hori trafikoarentzako itxi egingo dute, larrialdietakoentzat izan ezik. Gainontzekoa, berriz, irekita egongo da, baina Udalatzainoak ematen dituen jarraibideak bete beharko dira.

Kontsultarik egin nahi izanez gero edo argibide gehiago behar izanez gero, Obra, Zerbitzu eta Mantenimendu Departamentuan dago proiektua. Tolosa, 2006eko abuztuaren 30ean. ALKATEA.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Emakume bat hilik aurkitu dute bere etxebizitzan, indarkeria arrastoeekin

Herenegun aurkitu zuten hilotza, Santa Maria kalean; genero indarkeriaren hipotesia egiaztatuz gero, Tolosaldeko lehenengo hildakoa izango litzateke

ERREDAKZIOA

Tolosako Santa Maria kaleko etxebizitza batean emakume baten gorpua aurkitu zuten indarkeria arrastoeekin herenegun, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak azaldutakoaren arabera. R. C. G. 46 urteko emakumea izan da hildakoa eta atzo burutu zuten gorpuaren autopsia, Donostian. 17 eta 19 urte bitarteko bi seme-alaba gazte zituen emakumeak.

Lehen susmoek, emakumeak bere buruaz beste egin zuela jotzen zuten, baina, indarkeria arrastoak zituela jakiterakoan, emakumea erail dutenaren hipotesiak indarra hartu du.

Ustez senarrarekin bereiztuta zegoen hildakoa; senar ohiak urrutze agindua zuen, baina azkenaldian Tolosaldean ikusten zuten.

Tolosaldean genero indarkeriaren ondorioz hildako lehen emakumea izango litzateke, senar ohiak hil zuelaren hipotesia egiaztatuko balitz.

Ikerketak abian

Ertzaintzak eta Tolosako Udaltzaingoak ez dute ikerkuntzei buruzko informaziorik eman, «sumarioko sekretua delako». Beraz, Barne Sailak ez du heriotzari buruz dituen hipotesien berri eman nahi izan, autopsiaren emaitzak jakin arte.

Bitartean, atzo, goiz guztian zehar Ertzaintza hildakoaren etxebizitzan izan zen, ikerketa burutzen. Etxebizitza ez ezik in-



Santa Maria kaleko etxebizitza batean aurkitu zuten emakumea hilik. INIGO TERRADILLOS

guruak ere miatu zituzten; esaterako, Oria ibaian arakatzen aritu ziren.

Lehenengo erreakzioak

Gertaera honen aurrean Tolosaldeko Bilgune Feministak konzentrazioa egingo du, gaur, 12:00etan, Tolosako udaletxea-

ren aurrean. *Tratu txarrak heriotzera eramaten gaitu* leloperan egingo dute elkarretaratztea.

«Buruaz beste eginda, edo erailketa izanda ere, emakumea hil egin dute», adierazi dute elkartetik. «Ustez, eta bizilagunen arabera emakume honen tratu txarrak eta meha-

txuak telefonoz jasotzen zituen, eta salaketa bat bederen, jarri zion senar ohiari», gaineratu du Emakumeen Eskubideen Aldeko Plataformak.

Erailketa dela benetan ziur-tatuko balitz, beste ekintza batzuk ere egingo dituztela gehitu dute Bilgune Feministako kideek.

AMEZKETA ▶

Joxean Tolosa Txapelketako finalerdiak, biharkoan

Uda ia bukatuta, hainbat partiden ondoren, onenak lehiatuko dira

NEREA URBIZU

Bihar XVII. Joxean Tolosa Pilota Txapelketako finalerdiak jokatu dira Amezketan, kadete, gazte eta nagusien mailan.

Uda osoan zehar aritu dira txapelketa jokatzeko, eskuz banaka Amezketako frontoian. Hoberenatarikoak abuztuaren zehar ibili ziren, horien artean, lehenengo urtean irabazi zutenak. Olazabal areoarra ere ibili da txapelketan, hainbat hilabete jokatuta ahal izan gabe ibili ostean.

Aurtengoan, kadeteen mailan Txaruta eskolako Madariaga eta Irurtzungo Galartza ariko dira. Azken honen, III. Hirza Txapelketa irabazi zuen.

Gazteen artean Txarutako Otxandorena eta Zaramaga eskolako Albarado lehiatuko dira, eta azken partidaren Eibarko Bengoetxea, eta Ozkarbi eskolako Irureta. Denak, 17:00etatik aurrera, Amezketako pilotalekuan izango dira ikusgai.

Kalitatezko eskuz banakako pilota partida hauek ikusteko pilotalekurako sarrera kobratu egingo dute.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Txakurkumeak. Setter ingeles (leveling) arrazakoak. Ehiza txakur onen kumeak. Deitu 647 144 070, 678 066 396.
Argazki kamara. Nikon D50, 18-55 eta 55-200 objektiboak 1GBeko txartela eta poltza. 10 hilabetekoa. Egoera onean. 600 026 085

LANA

Zaintzailea. Neska euskalduna behar da haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 638 18 52 05.
Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.
Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.



jantzi hitza ren jertseak

HITZAren egoitzetan salgai

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Non ibili zara uda honetako oporretan? Beharrezkoa al da leku ezberdinak bisitatzea? Zergatik? Zein leku proposatzen duzu hurrengorako? Sar zaitez gure webgunean, eta eman zure iritzia, beste irakurleekin eztabaida sortzeko eta batak bestearekin alderatzeko.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. 5. Gazte Eguna: 10:00etan, gosaria; 12:00etan, sagardo dastaketa; 12:00etatik 14:00etara, I. Kanika Txapelketa; 14:00etan, paellada; 16:30ean, Alborraren bila; 18:30ean, poteoa Bonbereneako Txarangarekin; 21:00etan, afaria; 23:00, Desordutan eta talde sorpresa; gau osoan zehar, Txirrisklas.

Villabona. Irailaren 17an Jesusen Bihotz parrokiak Ramon Beristaini Arantzadi jatebean egingo dion bazkari omenaldira joateko txartelak salgai daude, parrokiako bulegoan, 18:00etatik 19:00etara, 30 euroren truke. Epea irailaren 4an amaituko da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Morant, R. Zabalarreta 1. 943 67 38 49.
 Leitza. Gimeno, A. Elbarren 32. 112.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 10:30-13:00. *Hitza* hegazti magazinaz. Munduari leihoa, kolaboratzaileak, agenda...

Goiko irrattia (107.0 FM)

13:00. *Komerra* magazinaz. Posta elektronikoa: komerra@hotmail.com

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



URTE ASKOAN
Naroa Mendez (Anoeta).
 Aizu 7 urte... Sorgindutako zenbaki honak ea zorte ona ekartzen dizun.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...


AGURRAK ▶



ZORIONAK!
 Lizartzako zure familia. Maite zaitugu Haimar.



ZORIONAK GUAPU!
 Elbixoen herritik alaitasun ziztadak!



URTE ASKOAN
Zorionak Nati!
 Senarra eta Txikoren partetik.



Aitaxorik tinko, kementsu ta maitagarriarenarentzat. Zorionak ta muxu pottolo pille zure bi sorginboen partetik. Urrundu gintuenak batuko gaitu! Osasuna, maitasuna ta askatasuna!



URTE ASKOAN
Jokin Martin Kortajarena (Zizurkil).
 Gaur 6 urte. Zorionak familiaren partetik, batez ere Haritz, Harriet, Nahia, Unai eta Ekhiaren partetik.



URTE ASKOAN
Maite Guibelalde (Ibarra).
 Gaur urtebete. Zorionak Kakun, Aranba eta Abuelosen partetik.



URTE ASKOAN
Maite Guibelalde (Ibarra). Gaur urtebete. Zorionak anaia, aita, ama eta familiaren partetik.



URTE ASKOAN HAIMAR
 Gure desira eta ametsak egi bihurtuko ditugulako, jo ta ke!
 Muxu handi ta goxoan ekitekoen partez!